

2019  
URRIA

## FEMINISMOA % 99REN ALDE MANIFESTU BAT

Cinzia Arruzza, Tithi Bhattacharya,  
Nancy Fraser

Itzultzailea: Danele Sarriugarte Mochales  
Zuzentzailea: Iraitz Urkulo (Iruak Itzulpenak)



### SAIAKERA

ISBN: **978-84-17065-86-7**  
ORRIALDEAK: **112**  
FORMATUA: **12 x 19**  
PREZIOA: **12,50 €**

“Erreprodukzio sozialak kapitalismoan duen zentraltasuna ulertu ondoren, ezingo dugu klasea berdin ikusi”.

**Nancy Fraser**  
(Berria, 2019/03/31)

Gizarte osoa krisi sakon batean murgildurik dago, kapitalismo neoliberalaren krisian, zeinak gutxi batzuentzako feminismo liberal bat sustatzen baitu politika elitista eta korporatiboaren bidez. Abiapuntu horri tiraka, hamaika tesi eta proposamen bat dakartza saiakera labur honen. Izan ere, tresna erabilgarria da egungo eztabaidak kokatzeko; horren erakusgarri da jatorrizkoa argitaratu zenetik urtebete ere egin ez duenean hamar hizkuntza baino gehiagotara itzuli izana.

Manifestu honek aldarrikatzen duen ezkerreko feminismoak egungo eredu neoliberalari oposizio bateratua egingen dio; emakumeen gehiengoaren egoerak eta premiak erdigunean jarriko ditu, eta gorabehera politiko, ekologiko, sozial, ekonomiko eta erreproduktiboak aintzat hartuko. Hala, sistema ekonomiko ofizialetik kanpo dauden zaintza mota guztien garrantzia aitortuta, gehiengoaren aldeko feminismo ezkertiar, antikapitalista, antiarrazista eta ekosozialista bat proposatzen du. Finean, modu argian azaltzen du zergatik ibili behar duen gizateria osoak % 99ren aldeko feminismoarako bidea.



**CINZIA ARRUZZA** Italiar feminista filoso-fiako irakaslea da The New School for Social Research ikastetxean, New Yorken. Besteak beste, *A Wolf in the City: Tyranny and the Tyrant in Plato's Republic* (Oxford University Press, 2018) eta *Storia delle storie del femminismo* (Edizioni Alegre, 2017) kaleratu ditu. Azken nazioarteko greba feministekin bat egin du. *Feminismoa % 99ren alde manifestua* du lehen lana euskaraz.



**TITHI BHATTACHARYA** Asiar historiako irakaslea da Indianako Purdue Universityn. Palestinaren aldeko borrokan aktibista engaiatua da aspalditik, eta *The Sentinels of Culture: Class, Education, and the Colonial Intellectual in Bengal* (Oxford University Press, 2005) argitaratu du. Teoria marxistari, generoari eta islamofobiaren politikei buruzko hainbat lan kaleratu ditu. *Feminismoa % 99ren alde manifestua* du lehen lana euskaraz.



**NANCY FRASER** Politika- eta gizarte-zientzien eta filosofiako irakaslea da The New School unibertsitatean, New Yorken. Emakumeen nazioarteko grebaren ideia bultzatu zuen 2017an, eta identitate-politikei eginiko kritikengatik eta justiziaren kontzeptua garatzen egindako lanagatik da ezaguna. Besteak beste, *Fortunes of feminism: from state-managed capitalism to neoliberal crisis* (Verso, 2013) kaleratu du. *Feminismoa % 99ren alde manifestua* du lehen lana euskaraz.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus